 Greba orokorra Hego Euskal Herrian

Nafarroan hainbat erantzun desberdin

Poliziarekin istiluak ere izan ziren eta lagun bat atxilotu zuten Iruñean

Atzoko grebak Nafarroan izan zuen eragina aztertzerakoan datu ugari eman zituzten sindikatuek. ELA eta LABek greba % 50ekoa izan zela argudiatu zuten eta pozik azaldu ziren. UGT eta CCOOek, ordea, lanuztea % 7ra iritsi zela zioten, eta langileen erantzun eskasa aipatu. Era berean, istilu asko izan ziren Iruñean, Polizia eta piketen artean, eta bertako gazte bat atxilotu zuten.

T.S. / IRUÑEA

Atzoko grebak Nafarroan izan zuen eragina aztertzerakoan datu nahasiak dira nagusi, ELA eta LAB sindikatuek lanuztea % 50ekoa izan zela bait zioten, eta UGTkoek, berriz, % 7koa. Gobernuak datuen arabera, grebak oso eragin txikia izan zuen Nafarroan, eta «beste edozein egun bezalakoa izan da gaurkoa», adierazi zuten. CCOO sindikatuek ez zituen datu zehatzik eman, baina Nafarroako eskualde batzuetan jarraipen handiagoa izan zela adierazi zuten.

Aipatzekoak dira egun osoan Polizia eta piketen artean gertatutako istiluak, batez ere goizean. Iruñean 16 urteko gazte bat atxilotu zuten merkataria bat denda ixtera behartzeagatik, Poliziako iturriek azaldu zuten. Alde Zaharrean karga polizialak egon zirela salatu zuten sindikatu abertzaleek, «Poliziaren presentzia txundigarria izan da, Alde Zaharrean kartelak kendu dituzte



Langileen kontzentrazioa Gaztelu Enparantzan.

JOXE

eta kalean zeuden langileen aurka eraso dute», azaldu zuen Martxe Satrustegi LABeko koordinatzaileak.

Garbi geratu zen grebak oso eragin desberdina izan zuela Nafarroako ipar eta hegoaldean. Baztan-Bidasoa, Sakana, Leitza eta iparreko beste aldetan, lanuztea erabatekoa eta % 80koa izan zela zioten ELA eta LAB sindikatu antolatzaileek. Adibide gisa, Lesakako Laminazioak, Sarrio, Ufesa, eta beste zenbait lantegitan ez zutela lanik egin adierazi zuten. Era berean, irakaskuntza, administrazioko sektoreetan grebaren eragina oso handia izan zen. «Nafarroako iparraldean

greba orokorra izan da, erdialde eta Iruñaldean % 50 ingurukoa eta Erriberan eragin murriztagoa izan du», azaldu zuen J.I. Sueskunek, ELAko ordezkari Nafarroan.

SINDIKATUEN BALORAZIO DESBERDINAK

ELA eta LAB sindikatuek, atzoko greba deialdia egin zutenek, oso pozik agertu ziren lanuzteari buruzko datuekin, «Nafarroan % 25 ordezkaten ditugu eta datuen arabera erantzuna horren bikoitza izan dira», zioten sindikatu ordezkariak. Zenbait eskualdetan partehartzea txikiagoa izanda ere, probintzia osoan erantzuna

orokorra eta oso positiboa izan dela gaineratu zuten.

UGT eta CCOO sindikatuek, berriz, poztasuna erakutsi zuten «langileek greba deialdiari jarraitu ez diotelako, beraiek badakite biharko deialdia dela benetazkoa», Jesus Ancizar UGTko idazkariaren hitzetan. Gobernuak Ordezkaritzak era horren haririk jo zuen, «normaltasuna izan da nagusi, grebak ez du eragin handirik izan», zioten.

Iruñean garraioaren arazoa izan zen larriena, 9.30etatik aurrera ez bait zegoen autobusik. Goizeko zortzi t'erdietan autobusetako enpresa eta langileek sindikatuarekin negoziatu zuten

ordutegia. Horren arabera, autobusak 8.00etatik 9.30etara, 13.00tik 14.30etara eta 18.00etatik 17.30etara bakarrik ibiliko ziren. Baina akordioa ez zen bete eta ordu bata baino lehen hasi ziren zerbitzuak. Sueskun hitzetan, «presio eta mehatxuak» jaso zituzten langileek eta lanera itzuli ziren.

Iruñeko poligonoetan lanuztea % 50ekoa izan zela adierazi zuten ELA eta LABekoek, beste sindikatuek kontrakoa esan bazuten ere. Seat Landaben lantegiari buruz emandako datuek nahaste izugarria sortu zuten, bertako lantegi garrantzitsuen delako. Patronalak esan zuen 300 langilek bakarrik egin zutela lanuztea, eta sindikatu abertzaleen arabera, aldiz, % 50ek.

KONTZENTRAZIOAK NAFARROAKO HERRIETAN

Eguerdiko ordu batean

kontzentrazio bat egin zen Iruñeko Gaztelu Plazan, ELA eta LAB sindikatuak antolaturik. Bertan 2.000 pertsona inguru bildu ziren, 2.500 sindikatu hitzetan. Sueskun eta Satrustegik garbi adierazi zuten «greba honen ondoren ekintza sindikalaren batasuna lortzeko saioak egingo ditugu, horrelakorik Nafarroan ez dugulako. Batasun hori lortzea ezinbestekoa da industrializazioa eskatzeko, langabeziaren aurka egiteko eta langileek jasaten ditugun erasoaren kontra lanean hasteko».

Herrialdeko beste lekuetan ere egin ziren kontzentrazioak, Tuteran, Lizarran, Altsasan, Leitza, besteak beste.

UGT eta CCOOek antolaturik bigarren greba gaur Nafarroan


IRUÑEA

Nafarroan ez ziren atzo bukatu sindikatuaren protestaldiak, gaurko ere greba deialdia bait dago, Estatuan bezala, UGT eta CCOO sindikatuek antolaturik. Lau orduko greba da gaurkoa, baina ez leku guztietan. Irakaskuntzan egun osoan antolatu dute, baita beste sektore batzuetan ere. Nafarroa da, Estatu osoan, bi greba deialdi dituen probintzia bakarra, sindikatuaren artean akordioa lortu ez zelako.

UGT eta CCOOekoek diotenez, Nafarroako egoera desberdina da, «hemen ez daude EAEn dauden arazoak, eta Estatuoko beste probintziekin batera borrokatzea da hoberena», azaldu zuten pasa den astean. Gobernuaren dekretua, Greba Legea, bateratasuna «langile guztien ara-

zoak dira, andaluziarrak, kataluniarrak, euskaldunak edo nafarrak badira ere», aipatu zuen Gaurateak, «horregatik erabaki dugu 28ko greba egitea Nafarroan, EAEn 27an egiten badugu ere», gaineratu zuen.

Gauzak horrela, atzo greba egin ez zuten langile askok gaur egingen dute, lau orduko alegia. Goizeko hamarretan kontzentrazioak prestatu dituzte industrialdeetan, elkarrekin abiatzeko Iruñeko kaleetara, eguerdiko hamabietarako antolatu bait dute manifestazioa. Tuteran ere ordu berean izango da manifestazioa, eta herrialdeko beste zenbait herritan kontzentrazioak egin dituztela adierazi zuten UGT eta CCOOekoek. Bi sindikatuak atzo azaldu zuten, «langileek badakite gaurko deialdia dela benetazkoa».



Istilurik ere izan zen Nafarroan atzoko greba egunean.

JOXE